

BEDAR-LANA

Basoak, soloak ala abereak

Baserrian beti izan dira arloen artean burrukak. Aberedunak ziran lenengoak eta oneik ziran lur guztien eskubidedun, jabe izan barik: baso guztietan erabili ekeezan euren abereak.

Gero baserritarrak agertu ziran eta inguruko lurren jabetasuna lortu eben. Ez artzaiñakaz burruka barik. Gaur be ba dago olako burrukea.

Baiña aspaldion irugarren arloa datorku indartsu, zugaztidunena. Oneik, solo izan bear leukeen lur-zati asko zugazti egin ditue, orrelan lantegiko zeregiñagaz baserria errezago alkar-tzeko. Gaurko burrukea, piñuen ta soloen artekoa da, eta piñudiak dirudie indartsuagoak.

* * *

Abereen janaria

Abereen edo ganaduaren janaria da gaurko arazorik aundienetariko bat.

Lurrak emona da merkeena, eta orregaitik emoten dau bedarrak ainbesteko lana.

Bedarra bear dau aberedunak, batez be negu-aldirako. Zelan pillatu?

Bedar-siloak egiten dira aspaldion eta elburu au lortzeko oso egokiak dira, batez be legortu bako bedarra izanik, legorak ez dituan indargai batzuk ditualako.

Orozko aldian dago bedarkin edo bedar-fabrika bat, bedarra arlo txikian eta ugari lortzeko

era bat. Egunen baten ara joan eta ondo aztertu bearko dogu.

Baiña antxiñatik gure baserrietan bedar sikua izan da negurako janaria, laztategira sartzen dana edo etxe-inguruan pillotuten dana.

Auxe da, ain zuzen be, aldi onetako lana.

* * *

BEDAR SIKUA

Urte guztietan, baiña batez be urte euritsuetan, eta aurtengoa euritsua izan dogu bat izatekotan, lan aundia ta gogorra izaten da bedar sikuaren bearra.

Lenengo ebagitea. Orain ebakiñak dagoz, baiña sarritan ezin sartu izaten dira, lurra zelaja ez dalako. An-or-emen ikusten doguz baserritarrak, goizean goizetik asita, euren kodañakaz bedarra ebagiten, geienetan auzoen laguntasunaz eta, len-txoago, domeketan egiten zalako, erriko abadea asarre zala.

Gero zabaldu, geroago buelta bat edo bi emon, urrengo batu ta burdiratu eta azkenez laztategira sartu. Al ba da euriaren buzti-aldirik artu barik.

Negurako laguntasun aundia izango da bedar ziku au. Ortik etorriko da ainbeste izardi emon-azo dautsan lanaren frutua.

OLAZAR'tar Martin'ek

